



KOSTUEN EGITURA

Kostuen egitura enpresaren proiektu baten gastu guztien antolamendua da. Honek barne hartzen ditu gastu ekonomikoak, ingurumenekoak edo sozialak, eta proiektuaren jasangarritasuna bermatzeko ezinbestekoa da. Kostuak argi zehaztea eta analizatzea baliagarria da baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko eta irabazi-marjina optimoak mantentzeko.

"Gazte Aurretsiak", kostu mota desberdinak ditugu, hau da, enpresak behar bezala funtziona dezan estali behar ditugun gastuak. Zeintzuk diren eta nola eragiten diguten jakiteak hobeto antolatzen, dirua aurrezten eta dena ondo doala ziurtatzen laguntzen digu. Hemen modu errazean azaltzen dugu nola funtzionatzen duten kostu horiek eta nola erlazionatzen diren egiten dugunarekin.

Lehenik eta behin, kostu finkoak ditugu, hau da, zenbat lan egiten dugun kontuan hartu gabe beti ordaindu behar ditugun gastuak. Esaterako, biltegi eta bulegoen alokairua, langile finkoen soldatak eta autobusen aseguruak. Nahiz eta materialik ez saldu edo autobusek bidaiarik ez egin, kostu horiek ez dira aldatzen, eta hileror ordaindu behar dira.

Ondoren, kostu aldakorrak daude, lan egiten edo saltzen dugunaren arabera. Adibidez, autobus gehiago alokatzen baditugu, erregai gehiago gastatuko dugu, eta mantentze lan gehiago egingo ditugu. Gauza bera gertatzen da eskolako materialekin: gehiago saltzen badugu, material gehiago erosi beharko dugu. Gastu horiek igo edo jaitsi egiten dira daukagun jarduera kantitatearen arabera.

Kostu zuzenak ere baditugu, eta horiek dira saltzen dugunarekin edo eskaintzen dugun zerbitzuarekin zuzenean lotzen direnak. Eskolako materialez ari bagara, hornitzaileei erosteagatik ordaintzen diegun dirua dira kostu zuzenak. Garraio zerbitzuaz ari bagara, zuzeneko kostuetan erregaia eta bidaia bakoitzean erabilitako autobusen mantenua sartzen dira.

Bestetik, zeharkako kostuak daude; gastu horiek ez daude produktu edo zerbitzu jakin bati lotuta, baina enpresa osoari eragiten diote. Horren adibide dira argia, ura eta biltegien eta bulegoen mantentze orokorra. Marketina ere sartzen da hemen, sare sozialetako publizitatea bezala, enpresa osoari egiten diolako mesede, eta ez produktu jakin bati bakarrik.

Horiez gain, gizarte- eta ingurumen-kostuak ere kontuan hartzen ditugu, gure jarduerak eragina baitu pertsonengan eta planetan. Gizarte-kostuen barruan sartzen dira, adibidez, eskola-materialak behar dituzten eskolei ematea edo ikastetxe publikoei eskaintzen dizkiegun deskontu bereziak. Horrek laguntzen digu bertako komunitatea babesten eta pertsona askoren bizitza hobetzen. Ingurumen-kostuak gure autobus-flotaren erregaiaren erabilerarekin lotuta daude. Eragin hori murrizteko, bidaien ibilbideak optimizatzen ditugu erregai gutxiago gastatzeko, eta material birziklagarri eta iraunkorrak saltzen dizkiguten hornitzaileekin lan egiten dugu, horrela ingurumena zaintzen lagunduz.



"Gazte Aurrezkiak" ekimenerako, hasierako inbertsioak funtsezkoak dira negozioa arrakastaz abiatzeko eta gure produktuak eta zerbitzuak modu eraginkorrean eskaintzeko. Autobusak alokatu beharrean, garraio enpresekin elkarlanean aritzen gara, komisio baten truke. Ondoren, behar diren inbertsioak eta gure eragiketara nola egokitzen diren zehazten dut.

Lehenik eta behin, dendak alokatzen ez baditugu ere, dauden instalazioak egokitu behar ditugu gure eskaintzara egokitzeko. Horretarako, apalategietan, erakusmahaietan eta biltegiatze-sistemetan inbertitu behar da, salduko ditugun eskola- eta bulego-materialak erakusteko. Denden dekorazioa pertsonalizatzea ere beharrezkoa da, gure marka islatu eta bezeroak erakar ditzaten. Hasierako gastu horiek ezinbestekoak dira espazio erakargarri eta funtzional bat sortzeko.

Bestalde, autobus enpresekin elkarlanean aritzean, eta horiek erosi edo alokatu beharrik ez dagoenez, gure inbertsioa enpresa horiekin akordioak sinatzera bideratzen da. Komisio baten truke, haiek emango dizkigute garraio zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren autobusak. Lankidetzaz horiei lotutako gastuetan sartzen dira gure erreserben bidez egiten diren bidaiengatiko komisioak, baina ez dago inbertsio handirik egin beharrik autobus propioetan.

Beste alderdi garrantzitsu bat teknologia da. Horren barruan, online plataforma bat garatuko da, bezeroek produktuak ikusteko, eskaerak egiteko eta autobusen erreserbak kudeatzeko aukera izan dezaten. Gainera, kudeaketa sistema batean inbertitu behar dugu, bai material salmentak, bai autobus erreserbak eta garraio enpresei ordaintzen dizkiegun komisioak kontrolatzeko.

Hasierako marketin kanpainak ere inbertsio handia suposatzen du. Publizitatea behar dugu sare sozialetan eta bestelako online plataformetan, baita promozioak ere dendetan, gu ezagutzera emateko. Marketinean inbertitzeak lehen bezeroak erakartzen lagunduko digu, batez ere funtsezko uneetan, hala nola ikasturte hasieran, eta gure negozioari ikusgarritasuna ematen.

Azkenik, gastu gehigarriak ere kontuan hartu behar ditugu, hala nola legez jarduteko behar diren baimen eta lizentziak eta langileen prestakuntza, kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izatea bermatzeko eta salmenta eta erreserba tresnak eraginkortasunez kudeatzeko.

Inbertsio horiek egin ondoren, funtsezkoa da inbertsioaren itzulkina (ROI) ebaluatzea. Gastatzen dugun euro bakoitzeko zenbat diru irabaziko dugun kalkulatzeko esan nahi du horrek. Adibidez, publizitatean edo dendetan egokitzearen inbertitzen badugu, ziurtatu behar dugu gastu horiek bezero nahikoak erakarriko dituztela eta materialen salmenta eta autobusen erreserba nahikoak sortuko dituztela hasierako kostuak estaltzeko eta irabaziak lortzeko.



Oso garrantzitsua da jakitea zeintzuk diren gasturik premiazkoenak eta beharrezkoenak negozio bat abiaraztean. "Gazte Aurrezkiak" programan, kostuak bi kategoriatan sailkatu behar ditugu: ezinbesteko kostuak eta bigarren mailako kostuak. Horrek dirua modu eraginkorragoan inbertitzen lagunduko digu, eta garrantzitsuena hasieratik estalita dagoela ziurtatzen.

Ezinbesteko kostuak saihestu ezin ditugunak dira, negozioak funtzionatzea nahi badugu. Gastu horiek beharrezkoak dira oinarrizko jarduerak martxan jartzeko. Gure kasuan, hainbat gauza sartzen dituzte: dendak egokitzea (dendak lehendik egon arren, gure produktuetara egokitu behar ditugu); online plataforma garatzea, bezeroek materialak ikusi eta erosi ahal izateko edo autobusen erreserbak egiteko; eta garraiorako hornitzaileak alokatu edo kontratatzea, autobus enprekin elkarlanean aritzen garelako. Kostu horiek gabe, ezingo genituzke gure produktuak eta zerbitzuak eskaini; beraz, guztiz funtsezkoak dira negozioa martxan has dadin.

Bestalde, bigarren mailako kostuak negozioaren errendimendua hobetzen laguntzen dutenak dira, baina hasieran behar-beharrezkoak ez direnak. Adibidez, marketin-kanpaina handi bat estatuan, edo aparteko denda-diseinu landu bat, bezeroaren esperientzia hobetu dezakeena, baina hori gabe ezin gara hasi. Era berean, azken teknologiako ekipoak erostea edo kudeaketa-prozesuetan hobekuntza osagarriak egitea ere barne hartuko luke, baliagarriak izan daitezkeen arren, ezinbestekoak ez baitira enpresa jardunean has dadin.

Oso garrantzitsua da "Gazte Aurrezkiak" ekimenerako negozioaren kostu guztiei adi egotea, dirua modu adimentsuan gastatzen ari garela eta ezarritako aurrekontua betetzen ari garela ziurtatzeko. Horrek esan nahi du etengabe monitorizatu eta aztertu behar ditugula kostuak, zertan gastatzen ari garen eta doikuntzaren bat egin behar dugun jakiteko.

Jarraitu dezakegun estrategietako bat dirua aurrezteko moduak bilatzea da, gure produktu eta zerbitzuen kalitateari eragin gabe. Hori hornitzaile merkeagoak aurkitzea edo gure gastu operatiboak doitzeko bezain erraza izan daiteke, sobera gastatu ez dezagun. Adibidez, eskolako material berdinak prezio baxuagoan lor baditzakegu kalitatea galdu gabe, hori aurrezte handia izango da.

Gastuak murrizteko beste modu bat prozesu eraginkorrak bilatzea da, hau da, denak azkarrago eta baliabide gutxiagorekin funtzionatzea. Hori izan daiteke autobusen eskaerak eta erreserbak kudeatzeko modua hobetzea edo garraio-ibilbideak optimizatzea erregaiaren kontsumoa murrizteko.

Halaber, garrantzitsua da gizarte- eta ingurumen-kostuak nola murriztu pentsatzea. Horrek esan nahi du gure jarduera modu jasangarriagoan egiten saiatzea. Adibidez, birziklatu ezin diren materialak erabili beharrean, ekologikoagoak diren eta ingurumenean dugun eragina murrizten laguntzen duten aukerak hauta genitzake. Era berean, horrek onura sozialak izan ditzake, hala nola irudi arduratsuagoa sortzea, iraunkortasuna baloratzen duten bezeroak erakartzeko.

Kostuen egitura ondo zehaztea funtsezkoa da "Gazte Aurrezkiak" arrakastatsua izan dadin, negozioarekin lotutako gastu guztiak modu eraginkorrean antolatzeke aukera ematen baitigu. Kostuen egitura argi batek baliabideen erabilera optimizatzen lagunduko digu,



Assa Ikastola
2024-2025 ikasturtea
Batxilergo 2: Ekonomia

Canvas eredua - Kostuen egitura

funtsezkoak ez diren arloetan sobera gastatzen ez dugula ziurtatuz. Gainera, egitura hori ondo definituta edukitzeak operazioan sor daitezkeen ezusteko gastuei aurre egiteko prestatzen gaitu.

Kostuak etengabe ebaluatzea eta eguneratzea funtsezkoa da enpresa epe luzean iraunkorra izango dela bermatzeko. Horrek esan nahi du aldiari-aldiari berrikusi behar dela zertan ari garen gastatzen, nola ari garen kudeatzen eta ea modurik aurki dezakegun kostu horietako batzuk murrizteko gure produktuen eta zerbitzuen kalitatea arriskuan jarri gabe. Hori etengabe egiteak aukera ematen digu merkatuko aldaketetara azkar egokitzeko, erabaki informatuak hartzeko eta enpresak errentagarria eta eraginkorra izaten jarraitzen duela ziurtatzeko.